



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2010-11-04**

VIII. URTEA 2.117. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestra sari nagusiarekin iritsi da etxera

TOLOSA Europa osoko hamahiru taldek hartu dute parte European Festival of Accordion Orchestras lehiaketan

SARIA Hiru urte barru mundu mailako lehiaketa ospatuko da; Pragan bertara joateko gonbitea jaso zuten z



Isidro Larrañagakoak bi talderekin joan ziren Pragara. Nagusiek lehen postua lortu zuten eta gaztetxoek bigarrena, euren mailan. Irudian, gazte eta helduak elkarrekin. HITZA

Babarrun jatea baino askoz gehiago, igandean

IBARRA Hauspoa Kultur Elkartek lehiaketa gastronomikoa eta antzerki zein dantza emanaldiak antolatu ditu 7

IKT Astean parte hartzeko aukera zabalik dago

EKONOMIA Lehiberrik sustatu ditu jardunaldiak, eskualdeko hainbat eragilerekin elkarlanean 3

Udazkenarekin batera herriko kaleak kultur ekitaldiz beteko dituzte alegiarrek

ALEGIA Bihar antzerkia ikusteko aukera edukiko dute; hilaren 7an, igandean, Dantzari Txiki eguna antolatu dute eta bertan 170 haur elkartzea espero dute Sutarri Dantza Taldeko kideek 4

kanikak

Azaroaren 30 arte %10eko deskontua iragarkia erakutsiaz

%10 deskontua

San frantzisko, 21 - Tolosa • tel.: 943 65 27 46

Musika » Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrak sari nagusia eskuratu du Pragako Nazioarteko Akordeoi Lehiaketan.

INIGO TERRADILLOS

«Zoragarria, ikaragarria» izan da iragan asteburuan Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrak bizitakoa. Eta ez da gutxiagorako, Pragan parte hartu duten Nazioarteko Akordeoi Lehiaketan sari nagusia irabazi baitute. «Oso pozik» daude lortutakoarekin, oraindik ere irabazle zirela esan zieteneko sentsazioak gainetik kendu ezinik.

Isitxo Larrañaga orkestrako zuzendariaren arabera, «orkestraren 30. urteurrena ospatzeko modurik onena» izan da lehiaketa irabaztea. Duela hiru urte lortutakoa berrestea «oso zail» ikusten zuen arren, orkestrako zuzendaria helburu horrekin joan zen Pragara. «Horrekin batera, gure emanaldiarekin gustura geratzea zen garrantzitsua», azaltzen du. Eta hori ere lortu zuten, izan ere, saioa «borobildu» egin zuten; «irabazi izan bagenu bezala poztu ginen, oso ondo egin genuela konturatu ginelako». Epaimahaia ere jabetu zen antza, eta lehen saria tolosarrei zegokiela ebazti zuen.

Europa osoko hamahiru taldek hartu zuten parte European Festival of Accordion Orchestras izenekoan, «Europako entzutetsuena». Horietaatik ailemiarrak ziren

«Irabaztea orkestraren 30. urteurrena ospatzeko modurik egokiena izan da»



Pragako lehiaketan parte hartu duen Isidro Larrañaga Junior orkestra. HITZA

euren zuzeneko arerioak, «erakutsi zuten mailagatik». Ezin izan zuten, ordea, Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestraren puntuazioa gainditu; tolosarrek 25 puntutatik 23,6 lortu zituzten. Zuzendariaren usetan taldeak erakutsitako «freskura, indarra eta obren zailtasuna» izan dira garaipena lortzeko ardatzak.

Helduen taldeak ezetik gazteen ere parte hartu zuen lehiaketa,

«Oso fin aritu ziren, maila ona erakutsi zuten, eta bigarren postua erdietsi zuten», dio Larrañagak.

Lehiaketan erakutsitako maila horretara iristeko «lan handia» egin beharra dagoela aitortzen du Isitxo Larrañagak. «Bakarkanahiz taldeka lan handia egin dugu, eta hori normalean ez da jakiten. Horregatik, Hodeiertz Abesbatza zoriondu nahiko nuke beraiek egin duten lan handia ezagutzen dugu»

lako, eta horren ondorioz sarituak izan direlako». Larrañagak, halaber, taldeetako kideen lan egiteko «gogoia eta nahia» azpimarratzen du. «Euren esfortzuari esker lortu dugu; benetan, talde ikaragarria dugu».

Mundu mailako lehiaketara

Europa mailako lehiaketan aritu dira aurretik, baina, baliteke mundu mailako lehiaketa batean aritzea

hiru urte barru. «Pragako Lehiaketako epaimahaia hiru urte barru egingo den mundu mailako lehiaketan parte hartzeko gonbita luzatu zigen. Oso pozgarria izan da, baina pentsatu egin behar dugu joango garen».

Hainbeste itxaron gabe, garaipena eman dien saioa entzuteko aukera izango da hilaren 21ean, Santa Zezilia eguneko kontzertuan, Leidor aretoan.

» ORKESTRAREN IBILBIDEA

- **1980.** Isidro Larrañaga Belokik Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestra sortu zuen.
- **1985.** Kontzertu bira egin zuen Frantzia, arrakasta handia lortuz.
- **1985.** RTVEko *Gente joven* saioan hartu zuen parte.
- **1987 - 1988.** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura Sailak eta Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundiek akordeoiari eskainitako jaialdietan hartu zuen parte.
- **1987.** Isidro Larrañaga Morenok beste orkestra bat osatu zuen 9 eta 13 urte bitarteko gazteekin.

- **1988.** RTVEko *Por la mañana* eta ETBko *Irigo en directo* saioetan hartu zuen parte.
- **1989.** Frantziako Mutzig hirian, XIV. Grand Prix International D'Accordeon nazioarteko lehiaketan lehen saria eta urrea.
- **1997.** Frantziako Bischwiller hirian antolatutako XVII. Grand Prix International D'Accordeon lehiaketan zilarra bi orkestrek.
- **1998.** Italiako Festival Internazionale Fisarmonica de Castelfidardo lehiaketan, urrea eta laugarren postua bi orkestrek.

- **2000.** Suitzako Grand Prix International de Geneve nazioarteko lehiaketan urrezko domina.
- **2001.** Kantabriako (Espainia) X. Nazioarteko Akordeoi Lehiaketan lehen saria eta urrezko domina.
- **2002.** Kantabriako XI. Nazioarteko Akordeoi Lehiaketan, bi orkestrek lehen saria eta urrea.
- **2003.** Kantabriako XII. Nazioarteko Akordeoi Lehiaketan, gazteen orkestrak lehen saria eta urrea eta helduek bigarrena eta zilarra.
- **2004.** Austrian kontzertu bira egin zuten bi orkestrek.

- **2006 - 2007.** Kontzertu ugari eskaini zituen Gipuzkoan, Kutxaren kultur eskaintzan parte hartuz.
- **2007.** Galizian Cedeira Akordeoi Lehiaketan lehen saria eta urrea.
- **2007.** Pragako European Festival of Accordion Orchestras nazioarteko lehiaketan sari nagusia.
- **2008.** Kantabriako XI. Nazioarteko Akordeoi Lehiaketan gonbitatu bezala hartu zuen parte.
- **2010.** Pragako European Festival of Accordion Orchestras nazioarteko lehiaketan sari nagusia eta gazteen orkestrak bigarrena.



2011 agenda

Dagoeneko salgai!



12€

- Liburu dendetan
- www.euskalherrikoplaza.com

Ezaugarriak:

- Hiru urtetako egutegia
- Intereseko telefonoak
- Euskal Herriko errepide mapa
- Aste osoa ikusgai

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Kale garbiketarako ordenantza egiteko bilera

ERREDAKZIOA

Tolosako Udalaren Obrak, Auzo eta Mantenimendu Sailak herritar guztiak deitzen ditu gaur, 19:30ean udaletxeko batzar aretoan egingo den bilerara. Bertan, kale garbiketarako ordenantza zehaztu nahi dute.

Kale garbiketa, zikinkeraren prebentzioa, kartelak jartzeko araudia, pintaketen kontrola eta garbiketa arautu nahi dituzte, besteak beste.

Dokumentu hau pertsona eta kolektibo ezberdinen partaidetzarekin ari dira egiten.

Etxebizitza tasatuak eskatzeko aukera zabalik dago

Tolosa » Igerondo, Alondegia eta Euskal Herria plazakoak dira; informazio gehiagorako Udalera joan behar da.

ERREDAKZIOA

Tolosako Udalak, Udal Etxebizitza Plana 2010-2012ren barruan, «130 etxebizitza inguru sustatuko ditu bere sozietateen bidez», eta horietatik 74 prezio tasatuak izango direla azaldu dute.

Etxebizitza horien sustapena esleitu edo adjudikatzeke, Udalak Udal Etxebizitza Tasatuen Eskatzaileen Erregistroa, hemendik aurrera Etxebizitza Tasatuen Erregistroa, eguneratu egin nahi du. Etxebizitza horietan interesa dutenek Erregistro horretan eman beharko dute izena eta, horretarako, izena emateko orria bete beharko dute eta bertan eskatzen den dokumentazioa aurkeztu.

Egun Etxebizitza Tasatuen Erregistroan inskribatuta daudenean beren datuak eguneratu egin beharko dituzte eta, horretarako, aurtengo azaroaren 26ko 14:00ak baino lehen aurkeztu beharko dute dokumentazioa. Horrela ez baldin badute egiten, Udalak jakinarazi duenez baja emango zaie.

Epea zabalik aurkitzen da

Aste honetan zabaldu da eskabideak aurkezteko epea. Ondorengo sustapenetan interesa dutenek beraz, udaltxerara joan beharko dute horretarako: Igerondo (babes ofizialeko 24 etxebizitza, alokairuan, 70 urtetik gorakoentzat edo mugikortasuna murriztuta dutenentzat); Alondegia (21 etxebizitza kontzesioan/alokairuan, adinekoentzat) eta Euskal Herria plaza (26 etxebizitza, alokairuan, gazteenentzat).

Jasotako datuekin, Udalak sustapen bakoitzarako oinarriak prestatuko ditu.

Etxebizitza Tasatuen Erregistroan izena emateko inprimakiak edo Igerondo, Alondegia eta Euskal Herri plazako sustapenetako eskabide-inprimakiak Udalaren web gunean eta Udal Erregistroan daudela azaldu dute azkenik.



Igerondoko lanak. A.I.



Lehiberrik IKT Astea antolatu du hilaren 8tik 12ra; eskualdeko industrialdeetan ikasgela mugikor bat ibiliko da. HITZA

II. Informazio eta Komunikazio Teknologien Astea antolatu dute

Ekonomia » Jardunaldietan parte hartzeko, izena emateaz gain konfirmazioa jaso behar dela azaldu dute Lehiberrik.

ERREDAKZIOA

Lehiberrik, Tolosaldeko Lehiakortasuna eta Berrikuntzarako Zentroak, bere eraikin propioa izan dezan oraindik ere 2 urte falta dira. Hala eta guztiz ere, izen bereko Foroak «buru-belarri lanean» jarraitzen du, 2008az geroztik.

Hilaren 8tik aurrera, Tolosaldeko II. Informazio eta Komunikazio Teknologien Astea antolatu du; «eskualdeko enpresei IKT-ak lehiakorrago izateko erreminta bezala nola erabili aholkatzeko helburuz». Honela, Lehiberrik azaldu dutenez, «Tolosaldeko enpresentzat formakuntzarako eta garapenerako bilgune izateko asmoarekin aurrera darraigu».

Goizez, industriaguneetan

Helburuak praktikan jartzeko asmoz, hilaren 8tik 12ra ikasgela mugikordun bat eskualdeko herrietan zehar ibiliko da formakuntza saioak emanaz.

Goizez, 09:00etatik eta 13:00etara, jardunaldiak komunikazioaren arloko teknologia berrien ingurukoak izango dira, «enpresako sail ezberdinetan aplikatu eta hauek eraginkorrago bihurtzeko».

Astelehenean, Tolosako Usabal

industrialdean izango da jardunaldia, eta administrazio eta konbilitate sailaren ingurukoak izango da berau.

Asteartean, Irurako Katategiren txanda izango da. Bertan, salmenteta eta marketing saila jorratuko dira.

Asteazkenean, ikasgela mugikorra Asteasuko industrialdera iri-

tsiko da, produkzio eta kalitate sailaren inguruan argibideak emateko asmoz.

Ostegunean azkenik, Ibarra Apatxaerrea industrialdean, goizeko jardunaldietan azkena egongo da, gerentzia sailaren ingurukoak.



Jardunaldietan izena emateko aukera zabalik dago. HITZA

Iragarki laburrak

LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak, ... garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe 638 94 46 04 (Gurutze) edo 695 70 82 71 (Belen) telefonora.

■ **Haur zaintzailea.** Etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko emakumea behar da. Interesatuak, deitu

600 86 95 04 telefono zenbakira.

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Lizartzan. Lehen solairua eta behea, bakoitza 115 metro karratuko da. Etxearen atzean belardia eta borda ditu, 74 metro karratu. Interesaduenak deitu: 699 97 26 99.

Arratsaldeetan, KZ Gunean

Hilaren 8tik 11ra, saioak Tolosako hirigunean, KZ Gunean, izango dira arratsaldeetan. Egutero 14:00etatik 16:00etara, komertzio-ari buruzko jardunaldi ezberdinak izango dira.

18:00etatik 20:00etara berriz, ondorengo gaiak aztertuko dira: hilaren 8an, *Nerabeak eta sare sozialak*; asteartean, *Erreminta mugikorren inguruko berrienak*; asteazkenean, *Zigilu digitalen erabilera*. *On line tramiteak* eta ostegunean, azkenik, *Blogak: komunikazio modu berri bat*.

Hilaren 12an, amaiera ekitaldia

Tolosaldeko II. IKT-Astea hilaren 12an, ostiralez, amaituko da Tolosako hirigunean, bai enpresa arloko pertsoneri, baita partikularrei zuzenduta egongo diren tutoretza informatiko batzuen bitartez.

Azken jardunaldi hau, Euskal Herria plazan egongo den ikasgela mugikordun batean izango da, eta ondoren, 13:00etan, IKT-Astearen itxiera ekitaldia izango da Tolosako Txotxongiloen nazioarteko zentroan, hau da, Topic-en.

Partaideentzat, doako aholkularitza informatikoa

Hurrengo astean burutuko diren jardunaldietan parte hartzen duten enpresek, doako aholkularitza informatiko bat izateko eskubidea izango dute, «euren enpresetan duten informatika sistemen eta baliabideen diagnostiko bat lortzeko aukera», hain zuzen ere.

Jardunaldietarako lekuak mugatuak direla azaldu dute antolatzaileek, beraz, «Tolosaldeko II. IKT-Astea parte hartu nahi dutenek lehenik izena eman beharko dute; hala eta guztiz ere, konfirmazioa jasotzen dutenek soilik izango dute parte hartzeko aukera».

Horretarako, 943 65 45 01 telefono zenbakira deitu beharko da, edota enpresa@tolosaldeanet.net helbide elektronikora idatzi. Gainera, jardunaldietara etortzen direnen artean blackberry bat zozketatuko dela ere jakinarazi dute ekimenaren sustatzaileek.

Hilaren 8tik 12ra bitartean antolatu dituzten jardunaldi hauek, Lehiberri, Tolosaldea Garatzen, Enpresa Digitala, Euskaltele Fundazioa eta Tolosaldeko LH Institutuaren elkarlanean esker burutuko dira.

Lizartza Udal etxebizitza tasatuak

Ezertako muga baino txikiagoa den prezioan eskaintzen ditugu, udalak eta sustatzaileak helaxe hitzartuta.

Apueta zabalte azaroaren 11 baino lehen

Lizartza	Lizartza
943 678 780	636 666 147
www.lizartza.com	www.tolosa.es

Udazkena kulturaz beteta etorri da Alegiara

Kultura » Urrian hasi ziren eta hilaren 28a bitarte, adin ezberdinetako herritarrek parte hartzeko moduko ekitaldi ezberdinak prestatu dituzte.

ERREDAKZIOA

Alegian udazkena kulturaz beteta etorri da. Urriaren 20ean hasi zuten *Apika* ipuin kontaketaekin eta hilaren 28a bitarte, aukera ezberdinak izango dira. Hitzaldiak, antzerkiak, tailerra, mendi irteera edota erakusketa izango dituzte.

Hurrengo txanda, ostiralean izango dute herriko txikiak. *Ali, haren amona eta alfombra hegalaria* antzerkia ikusteko aukera izango da. Eta igandean, Dantzari Txiki eguna egingo dute. Asteartean 18:30ean, Jakoba Rekondo landare aditua izango da, *Landareei buruz elkarrekin hizketan* hitzaldia ematen. Hilaren 18an berriz, Palestinaren inguruko hitzaldia izango da Jose Manuel Oiarzabalen eskutik. Helduek ere antzerkiak gozatzeko aukera izango dute hilaren 21ean. Lakrikun taldeak, *Prest gaude!* antzezlan eskainiko du.

Jarraian, defentsa pertsonalera-ko tailerra, ipuin kontaketa, hitzaldia, mendi irteera eta erakusketa ere izango dituzte.

Dantzari Txiki eguna

Txintxarri eguna ospatu zuten eta orain, dantzari txikien txanda izango da. Igandean, 10:00etan eskolako jolaslekuan elkartuko dira dantzari guztiak. 10:30ean Larraitz auzoan zehar kalejiran abiatuko dira. Bertako plazan, herri bakoitzeko talde batek dantza bana eskainiko du.

Ondoren herriko Frontoian harmaiketako egingo dute. Indarrak hartuta, Kale Beherara joango dira. Bertan herri bakoitzak beste dantza bana eskainiko du. Egunari bukaera emateko herriko Plazan elkartuta, Agurra, Fandangoa eta Arin Arina dantzatuko dituzte. Alegiaz aparte, Altzo, Anoeta, Iruira, Larraul, Lizartza, Tolosa, Urnieta eta Villabonako dantza taldeek parte hartuko dute.

Guztira, 170 dantzari inguru izango dira. Dantzari Txiki eguna antolatzeko herriko denda eta tabernetan eltzetsuak banatu dituzte, borondatea eskatuz. Guzti honen antolatzailea, Alegiako Sutari Dantza Taldea izan da.



Alegiako Dantza Taldeko kideak aurtengo Dantzari Txiki Eguna iragartzen. HITZA

» ALEGIAN UDAZKENEAN KULTURA

Hilak 5, ostirala

■ **Haur antzerkia.** Txalo taldearen eskutik, *Ali, haren amona eta alfombra hegalaria* antzerkia. 17:00etan Kultur etxean izango da.

Hilak 7, igandea

■ **Dantzari Txiki eguna.** 10:00etatik aurrera 170 dantzari inguru, dantza ezberdinak dantzatzuz herrian barrena ibiliko dira.

Ikastaroa

Hilak 9, 16, 23, eta 30

■ **Makrobiotika.** Aitor Jimenez herritarren eskutik, 19:00etatik 21:00etara Txintxarri Elkartearen.

Hilak 9 asteartea

■ **Jakoba Rekondo.** *Landareei buruz elkarrekin hizketan* hitzaldia es-

kainiko du. 18:30ean Kultur etxean izango da.

Hilak 18, osteguna

■ **Palestina.** Joxe Manuel Oiarzabalen, Palestinari buruzko hitzaldia eskainiko du. 19:30ean Kultur etxean izango da.

Hilak 21, igandea

■ **Antzerkia.** *Prest gaude!* helduei zuzendutako antzerkia eskainiko du Lakrikun taldeak. 19:30ean Kultur etxean.

Hilak 23 eta 25

■ **Defentsa pertsonalerako tailerra.** Emakumearenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira 19:00etatik 21:00etara Kultur Etxean da.

Hilak 26, ostirala

■ **Ipuin kontaketa.** Maitte Franco ipuin kontalaria 18:00etan liburutegian izango da.

■ **Elkartasunean mendia bide.** Felix Baltistan Fundazioaren eskutik hitzaldia 19:00etan Kultur etxean.

Hilak 28, igandea

■ **Mendi irteera.** Mendi Asanbladak antolatuta, 08:30etan Alegiatik abiatuko dira eta Ugarterako bide egingo dute eta bazkaria.

Erakusketa

Hilaren 22tik 27ra

■ **Felix Baltistan Fundazioa.** *Elkartasunean mendia bide* erakusketa ikusgai: asteazkenean zehar, 18:30etik 20:00etara eta larunbatean, 11:00etatik 12:30era.

«Nire kabuz egin ditut ikastaroak eta dakidana azaltzen dut»

AITOR JIMENEZ » Makrobiotika ikastaroko arduraduna

Alegia » Ikastaroarekin asteartean hasi ziren. Hamabi lagun daude eta Txintxarri Elkartearen beste lau saio egingo dituzte.

ENERITZ MAIZ

Aitor Jimenez alegiara ikastaroko arduraduna da. Bere burua ez du irakasletzat eta osasun arazoengatik murgildu zen makrobiotikan. Herritar batzuek eskatuta, makrobiotikaren inguruan ikasitakoa herritarrei erakusten ari da. **Iaz izan zen Makrobiotika ikastaroa eman zenuen lehen aldia eta aurten errepikatu egin duzue. Arrakasta izan zuen ikastaroak?** Bai, arrakasta izan zuen ikastaroak eta jendea izena eman ezinik geratu zuen. Hamabi laguneko muga

jartzen dugu eta aurten ere jendea kanpoan geratu da. Denentzako ez dago lekurik eta iaz egingdakoez ezin izan dute errepikatu.

Teoria eta praktika tartekatzen dituzu ikastaroan?

Oinarri oinarritzakoa da. Ezin da hutsetik hasi sukaldian. Makrobiotika filosofia bat da eta azaldu egin behar da. Baina ideia bat eman ostean, sukaldian hasten gara eta oinarritzko errezetak egiten ditugu. Prestatzen duguna ez da kantitate handian izaten baina guztiok probatzen dugu. Mahaian eseri eta komentatu eta baloratu egiten dugu egingakoa.

Labur azalduta zer da makrobiotika?

Makrobiotika oreka da. Elikagaien bitartez oreka bilatu behar da. Era berean elikagaiak orekatuta jatean datza.

Bost saio nahikoa dira Makrobiotikaren ideia jasotzeko?

Nik uste dut ideia bat egiteko nahikoa dela. Ni ez naiz irakaslea. Nik nire kabuz egin ditut ikastaroak eta dakidana azaltzen diet. Gehiago sakondu nahi duenak berak bilatu beharko du informazioa.

Zer nolako esperientzia da?

Oso ona. Jendea gustura joaten da eta harremanak ere oso onak dira. Prestatu egin behar ditut eta denborakentzen dit, baina konpentsatu egiten dit.

Zein motako jendea animatu da?

Ezagutzen al dute mundu hau? Iaz eta aurten ere denetik dago. Honelakoetan emakumeak beti gehiago izaten dira, baina iaz eta aurten hiru gizonezko animatu dira. Gazteek zerbait badakite baina beste askok ez dakite ezer. Eta emakume helduak ere badaude.

BERRIA egunkariarekin **DOAN**

Azaroak 5, ostirala,
karpeta eta lehenengo fitxak zure kioskoan
EGUNERO FITXA BAT; 20 ENTREGA.

Aukera ezazu, **BIZI** euskaraz **berria**

«Mementoa bilatu behar da gaizki ulertuak konpontzeko»

IZARNE LIZASO ▶ Psikologoa eta EHUko irakaslea

I. GARCIA

Adineko pertsonen zaintzaren inguruko bi ikastaro ematen ari dira Bidegoianen, Saiaz Mankomunitateak bultzatuta. Horietako bat, *Giza trebetasunak eta komunikazioa adineko pertsonekin* izenekoa, atzo bukatu zen eta Izarne Lizaso, gerontologian aditua den psikologoa eta EHUko irakaslea, izan da bere arduraduna. Beste ikastaroa, *Mobilizazioak eta laguntza teknikoak* izenekoa, gaur hasiko da.

Gero eta adineko jende gehiago dago. Nola eragiten du horrek gizartean?

Aldaketa garrantzitsuena proportzionaliki adineko jende gehiago dagoela da. 65 urtetik gorakoak hartzen dira adinekoak bezala eta egun populazioaren %18 inguru da. Aldiz, 15 urtetik beharagoak proportzio horren azpitik kokatzen dira. Adineko gehiago izateak hainbat ondorio ditu. Alde batetik onartu behar da lorpen sozial bat dela gero eta gehiago bizi ahal izatea. Alde ez hain ona izan daiteke, adin aurreratuetan, bereziki 85 urtetik aurrera, zenbait kasutan menpekotasun garrantzitsua izaten dela, horrek ekartzen dituen ondorio sozial garrantzitsuekin. Hor sartzen da, esaterako, ikastaro honetan landu duguna.

Landa eremu batean eman duzu ikastaroa.

Testuinguruaren arabera beharrrak ezberdinak dira. Ez da berdina hiri batean lan egitea, zentro batean, edo kasu honetan landa eremu batean lan egitea. Eremu euskalduna da, adinekoen artean dispersio handia egon daitekeena, etxe batetik bestera bi edo hiru kilometro... Behar horiei erantzuteko, zaintzaileak hainbat gaitasun eta abilezia izan behar ditu. Lana individuala da, pertsona bakarra baitoa etxe etxe. Berezia da lana eta alde horretatik eta kasu batzuetan, ez da erraza.

Zein dira arazo nagusienak adinekoekin komunikatzerakoan?

Lehenbizi garrantzitsua da esatea komunikazioa eta trebezia sozialak landu ditzakegula printzipioz galera kognitioa ez duen pertsona batekin. Galera kognitiboa badu, adibidez alzheimerra, zaila da elkarrizketa bat izatea, ulertaraztea, arrazoitzea... Komunikazioa eta trebezia sozialak lantzerakoan adineko pertsonekin, langilea behintzat kontziente izatea adineko batek erantzun bat ematen duenean, edo ixilik gelditzen denean, edo portaera bat duenean, horren atzetik zer dagoen. Gure helburua ez da adinekoen komunikazio sistema aldatzea edo hobetzea, baina bai langileak bere trebezia, bere



I. GARCIA

errepertorioa aldatu ahal izatea. Adineko pertsona batengana banoa eta ikusten badut ez dela ohetik ateratzen, ez duela ezer esaten, horrek berak niri asko esan nahi dit. Langileak adineko horren egoera irudikatzen saiatu behar du eta eduki horiek garatu ditugu ikastaro honetan.

Zer beste trebetasun behar dira?

Gaizki ulertze bat dagoenean, adibidez langilea eta adinekoaren artean, bero-bero baldin bagaude edo zer gauza esan daiteke. Garrantzitsua da mementoa bilatzea. Izan daiteke hurrengo bisitan, gauzak pentsatu direnean, lasaia goardenean, behar bezala egoera hori planteatzea. Eta hori lehen pertsonan egitea, hau da, nola sentitu naizen esatea. Beste teknika bat empatiarena da. Bestearen tokian jarri eta zer pentsatzen duen, zer sentitzen duen kontziente izatea.

Zein kezka agertzen dituzte ikastaroak egiten ari direnek?

Ikastaro teoriko-praktikoa da. Kasu praktikokoak lantzen ditugu, zenbait eduki askoz hobeto lantzen baitira horrela. Horiez gain inguruko kasuak plazaratzeko eskatzen diet, hau da, gure bizitzako egoera errealak.

Ikastaroak egiten ari direnak adinekoen zaintzan lana egiten dutenak dira?

Badira batzuk ahaideak zaintzen ari direnak, baina gehienak horretan lan egiten dutenak dira. Gainera atentzioa deitzen dit langile bezala ari den emakumearen perfla. Emakume adinez heldua da, 40-50 urte dituzte gehienek, euskaldunak dira, lan merkatuan aukera gutxi izan dituztenak. Eta ustez dituzten muga horiei aurre egiten diete. Bizitza nahiko sakrifkatua, bere etxean, bere familian eta bigarren maila batean egon dira eta orain lan honekin aitorza bat izaten ari dira: bere lana aitortu egiten zaie. Oso garrantzitsua da aukerame hauentzat aukera hau izatea.

Kultur Etxea inauguratuko dute etzi hasiko den Kultur Astearen baitan

Amezketak ▶ Igandean izango da inaugurazioa eta egun horretan bertan egingo da Albizuri-Aundi harriaren txapelketa.

ERREDAKZIOA

Aurtengo Kultur Astea etzi hasiko bada ere, ekitaldi bereziena igandean izango da. Egun horretan inauguratuko dute Amezketako Kultur Etxe berria. Bertan egingo dira, gainera, Kultur Astearen hainbat ekitaldi, tartean, Astea irekiko duen lehen ekitaldia: Trifidus musika taldearen musika emanaldia. Jazz eta blues musika uztartaldeak da Iban Gurrutxaga amezketarra.

Igandean bertan beste ekitaldi interesgarriak izango da: Albizuri-

Aundi harriaren jasotze txapelketa. Bederatzi harri-jasotzailek parte hartuko dute: Izeta II.a, Izeta III.a, Joseba Ostolaza, Landarbidde, Joxe Calvo, Iban Ugartemendia, Unai Lertxundi, Urtzi Telleria eta Goenatxo II.a. Bakoitzak 10 minutuko tanda izango du harria jasotzeko. Gipuzkoako Herri Kirolen Federazioak arautuko du lehiaketa.

Gazta txapelketa

Kultur Astearen beste bi lehiaketa ere izango dira. Alde batetik herriko gazteek eta Realeko veteranoek egingo duten erronka. Bestetik herriko gazten txapelketa egingo da. Azken txapelketa honetan bi puntuaketa izango dira. Hilaren 12an egingo den gazten katan, epaimahaiak emango ditu puntuak. Herriarren txanda azokaren egunean izango da, hilaren 14ean. Bi



Albizuri-Aundi harria. N. URIBIZU

puntuaketak erabiliko dira gazta txapeladuna erabakitzeko. Berdinketarik balego, epaimahaiak emandako puntuak erabakiko dute gazta txapeladuna.

» EGITARUA

Azaroak 6, larunbata

- 19:00. Kultur Etxean, Trifidus taldearen jazz-blues emanaldia.
- 20:30. Afarria Ugarten.

Azaroak 7, igandea

- 12:30. Kultur Etxearen inaugurazioa.
- 16:00. Albizuri-Aundi harriaren altxatze txapelketa, Larrunari pilotalekuan. Sarrera: 10 euro.

Azaroak 8, astelehena

- 20:30. Kultur Etxean Sara Gomezen *Ilunpeko bidaiak* argazki erakusketaren aurkezpena eta Mikel Gurrutxagak idatzi eta Maite Gurrutxagak ilustratu duen *Alex, nire laguna* liburuaren aurkezpena.

Azaroak 9, asteartea

- 20:30. Joxe Mari Oterminen eskutik, Amezketako etxeen historiari buruzko hitzaldia, Kultur Etxean.

Azaroak 10, asteazkena

- 20:30. Mahai-ingurua, Kultur Etxean, *Txindokiko gora-beherak* izenburupean. Parte-hartzaileak: Luis Mari Larreta (6 aldiz), Ibon Artola (8 aldiz), Iker Karrera (11 aldiz) eta Patxi Caminos (12 aldiz). Bixente Gorostidik gidatuko du mahai-ingurua.

Azaroak 11, osteguna

- San Martin Eguna eta Umeen Eguna**
- 11:00. Meza San Martin Ermitan. Ondoren Bixente Gorostidi eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariak eta Laja eta Landakanda trikitilariak.
- 13:30. Umeentzako bazkaria jangelan. Ondoren, puzgarriak eta

merienda izango dituzte Larrunari pilotalekuan.

- 14:00. Bazkaria Errekalden.

Azaroak 12, ostirala

- 19:00. Kultur Etxean, herriko gazten kata egingo dute, Joserra Agiriano gazta katatzailearen laguntzarekin.
- 21:00. Zahagi-ardoa, Larrunari pilotalekuan. Udalak ardoak jarriko du. Ondoren, Keira musika talde gaztearen emanaldia.

Azaroak 13, larunbata

- 12:00. Herriko gazteen eta Realeko veteranoen arteko lehia. Areto futboleko ariko dira plazako frontoian. Ondoren, herri-kiroletan: korrikan, txingak jasotzen, koxkolak biltzen, harri-jasotzen, trontzan eta soka-tiran.

Azaroak 14, igandea

- 10:00. Azokari hasiera emango zaio. Besteak beste, gazta txapelketaren sari banaketa egingo da.

TOLOSA 2010
X. MUXI TXAPELKEA AZKARRA

Azaroak

13

Larunbata

FRONTON KAFETEGIA

LEKUA

BEOTIBAR PLOTA-LEKUA

Ordua

16:30

SARIAK

1. - 1.200€+ Txapelak + Garaikurrak
2. - 600€+ Garaikurrak
3. - 300€
 - Jolauak 4 erregatara,
 - 6 hamarreko 3 ustelera.
4. - 150€
5. - 100€
6. - 100€
7. - 100€
8. - 100€

• Bilaketa bakoitzaren ardoinketa: 30€ Fronton kafetegian

• Epaileren erabakia mugagaitza izango da.

• Aldaz aurretik

posta elektronikoa: fronton@jehk.org

tel: 943 65 14 70

Txapelketak 2011ko premudalera gontzidatutakoak izango dira

Orantzaroa, atzera begira jarriko dira, ohiturak berreskuratu eta aurrera egiteko

Leitza » Orantzaroaren inguruan egindako azterketaren berri emango dute gaur 19:30ean izango den hitzaldian.

ERREDAKZIOA

Orantzaroa mintzagai izango da gaur iluntzean liburutegian. Leitzako Kultura Taldeak antolatuta, 19:30ean izango da saioa. Leitzar askok eta askok, guraso eta aiton-amonengandik entzundako garai bateko ohitura bezala ezagutzen dute Orantzaroa.

Zenbaitek, harreta handiegiriki jarri gabe entzungo zuten istorioa. Baina, Fernando Oiarzun, Kultura Taldeko kideak jakin-minak jota, Orantzaroaren inguruko azterketa bat egitea erabaki zuen duela hilabete batzuk. Orain, eta gaurko ekitaldian, honen inguruko hainbat azalpen emango ditu



Solstizioarekin lotua zegoen Leitzako orantzaroa. JAIONE ASTIBIA

leitzarrik. Ikerketa hau burutzeko garaian, herriko hainbat adinekoren testigantzak bildu zituen, eta hauetako askok, gaurko hizketal-

dian parte hartuko dute. Beraien istorioak eta oroitzapenak bertaraten direnei agertzeko.

Honela dio Oiarzunek bere

ikerketan: «amak askotan esaten baitzigu gure herrian nola paratu izandu diren orantza-egunean, eguberri bezperan, muñekoak edo pampinak balkobe eta leihoetan».

Usadioa eusteko apustua

Leitzako Kultura Taldeak Orantzaro usadioa berreskuratzea du helburu. Izan ere, Euskal Herriko inguru gehienetan, Olenzero bezala ezagutzen dugunak, Leitzan istorio berezi bat du. Gehienok, Lesakatik datorren tradizioari jarraituz, ikazkin bizar handia ezagutzen dugu Olenzero bezala. Baina, hainbat ikerlariren ondorioen arabera Leitzan, izenak berak dioen bezala, Orantzaroa hortik haratago doan zerbait da. Garaibat da, aro bat, solstizioarena izendatzeko erabiltzen zen, eta aro hori irudikatzen giza-irudia jartzen zen. Hau emakumezkoa nahiz gizonezkoa izan zitekeen, eta edozein lanbide zuena.

Nahiz eta urte asko igaro diren, eta ohitura ia galduta dagoen, leitzar agure askok oraindik gogoan dute, nola, haurrak zirenean, etxe askotan, orantza-aroaren ospakizun gisa pampinak zintzilikatzen zituzten baserrietako balkoietatik. Usadio edo tradizio hau ez galtzarren, Kultura Batzordeko kideek, izatez leitzar den ohitura hori berreskuratu nahi dute. Eta horretarako bide izango da gaur iluntzeko hizketaldia eta mahai-ingurua. Honela, aurrera begira eman behar harko liratekeen pausoak herritarrekin eztabaidatu ahal izango dituzte.

Oraindik ere, bide luzea dago egiteko

Leitzako Kultura taldekoen hitzetan, orain bilketa prozesuan daude, hau da, informazioa pilatu nahian ari dira. Aurrera begira, ikerketarekin jarraitzea eta gai sakontzea da beraien xedea. Irudikatzen erak, hari buruzko kantak, usteak... aurkitzeko.

Emaitzak bildu ostean, honekin, lan mardul bat egiteko asmoa dute, irudi, argazki eta testigantzekin osatua.

H Hilberria

IÑAKI MUJIKA ARREGI



Aski genuen Kukura sartzea atetik Iñakik erantzuna beti sukaldetik nahiz eta joan zaren Kuku elkartetik inoiz ez zara joango gure bihotzetik



ANOETAN,
2010eko azaroaren 4a

KUKU ELKARTEKO ZURE LAGUNAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel: 943-65 56 95

IÑAKI MUJIKA ARREGI

Laskorain ikastolako langilea



Zure ondoan eginak gara solas, malko eta irri alde egin duzu hemen utzita bihotzak triste ugari gu guztiotzat zu maitatzea iza da egiazko opari gudan bizirik iraungo duzu muxu haundi bat Iñaki



TOLOSAN,
2010eko azaroaren 4a

LASKORAIN IKASTOLAKO langile, ikasle eta gurasoak

IÑAKI MUJIKA ARREGI



Anoetako Udaleko zinegotzi ohia



ANOETAN,
2010eko azaroaren 4a

IÑAKI MUJIKA ARREGI

Lagun, maisu eta kide pertsona elegantea orain gure bihotzetan utzi du atsekabea hainbat ikasgai emanez umezurtz utzia duzu umezurtz utzia duzu ikastolako jendea jaiotzez anoetarra etzaigu erraza izango utziaz bere ondarea zu horrelaxe ahaztea euskaltzale amorratua gure barnean zaitugu hura zen bere legea Iñaki maisu maitea



ANOETAN,
2010eko azaroaren 4a

Laskoraingo ikasleak

IÑAKI MUJIKA ARREGI

Bigotedun, maixu, sukaldari, parranda-lagun, argazkilaria, bidaia-lagun.

Osaba bat, mila oroitzapen.

Zure ilobek

Begoña, Joxean, Nekane, Jesus Mari, Oihane, Mikel, Ainara, Jon, Joana, Maider, Andoni, Ekain, Maialen, Juanma, Jon, Aitzol, Ainhoa, Alaine, Ekaitz, Elene, Aiora, Irati, Joana eta etxeko txikiak.



ANOETAN,
2010eko azaroaren 4a

IÑAKI MUJIKA ARREGI

Aio Iñaki, eta mila esker zure irakaspengatik, horiek gurekin izango baitira betiko

Zure ikasle ohia



HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakoitzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenaz, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Pasaik eskaintzen ditugu gure kaltetarekin bermearik.

Bereskurazena da galduta duzuna, baina lagurta eskainiko dizugu dena errazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

Laburrak

'El escritor' filma ikusgai bihar eta igandean

LEITZA Roman Polanski zuzendararen *El escritor* lana ikusgai izango da asteburu honetan, Leitzako zinemaren. Bihar 20:00etan izango da lehendabizikoa emanaldia eta igandean, 19:00etan hurrangoa. Ewan McGregor, Pierce Brosnan eta Olivia Williams dira Verlingo jaialdian zuzendari onenaren Urrezko Hartzaz saria irabazi zuen film honetako protagonistak.

Bardeetara irteera antolatu du Mendibilek, iganderako

LEITZA Mendibil taldeak Bardeetara irteera antolatu du igande honetarako. 07:30ean aterako dira Leitzatik, eta 17:30ak aldera itzuli. Bost ordu eta erdi inguruko ibilbide zirkularra egingo dute. Taratean Peñafloren gazteluaren hondarrak ikusiko dituzte, Punta de la Estroza igota. Handik Barranco Grande jarraituz abiapuntura itzuliko dira, hau da, Cabaña Aguirrera. Izena emateko epea gaur amaitzen da. Horretarako, interesatuek Astiz edo Maimur liburu dendetara jo beharko dute, edo mendibiluara@hotmail.com-era.



Bardeak bisitatuko dituzte. HITZA

Ipuin kontalariarekin hasiko dute Kultur Astea

BERASTEGI Aste Kulturala dela eta, gaur, ez da eskulanetako ikastarorik izango. Izan ere, 17:00etan, Idoia Sanchez ipuin kontalariaren emanaldia izango da eskolako jantzelan. Bihar berriz, Ixiar Atxukaroren ingelesezko ematen duten haur guztiak ere jai izango dute pista jokoak baita. Hau 16:30ean hasiko da.

Babarrunaren bueltan festa handia antolatu du Hauspoak iganderako

Ibarra Urteroko babarrun jatetik haratago joanaz, lehiaketa gastronomikoa, antzerkia eta dantza emanaldia izango dira.

ERREDAKZIOA

Tolosako babarruna bezala ezagutzen baldin bada ere, lekale preziatu hau, inguruko herrietako hainbat eta hainbat sorotan ere itaen da. Horregatik, beste behin ere Hauspoa Kultur Elkarteak babarrunaren bueltan, festa handi bat ospatzea erabaki dute. Goizean goiz jarriko dituzte heltzeak sutan, baina hauek egiten diren bitartean, izango dute zer eginik, hainbat ekitaldi antolatu baitituzte.

Dultzaineroak arduratuko dira festa giroa herrian zehar barreiatzeaz. Hauek Ibarrik barrena ibiliko baitira goizean zehar. Bestalde, bazkalondan, herriko abeslariekin batera, eguneko azken doinuak eta kantak joko dituzte.

Babarrunaren lehiaketa

Aurten estreinakoz, babarrun jatetik haratago joatea erabaki dute Hauspoa Kultur Elkarteak. Hala, Babarrunaren I. Lehiaketa Ibartarra jokatuko da goiz guztian zehar.

«Urteroko ospakizun hau indartzeko eta borobiltzeko apus-

» IBARRAKO BABARRUN JATEA

Azaroak 7, igandea

■ **09:00.** Babarrunaren I. Lehiaketa Ibartarraren hasiera Ibarra plaza.

■ **11:30.** Uzturpe ikastolako ikasle- antzezlanak Kultur Etxean.

■ **12:30.** Alurr dantza taldeko haurren dantza emanaldia Ibarra plaza.

■ **14:00.** Babarrun jatea Ibarra plaza.

■ **Bazkalondan.** Sari banaketa. Bestalde, dultzaineroak eta herriko abeslariak arduratuko dira hau alaitzeaz.

■ **Goizean zehar.** Dultzaineroak ibiliko dira kalejiran.



Herriko plazan jarriko duten karpan izango dira eguneko ekitaldi gehienak. HITZA

tua» egin nahi izan dute aurten Hauspoakoek. Izan ere, bertako kideek diotenez, «orain arte, bazkariko garaia arte ez zen ezer egoten, eta nahiko hotza geratzen zen». Horregatik, «egunari zentzu berri bat» emateko asmoz, lehiaketa, antzerki emanaldia eta dantza erakustaldia izango dira.

Eguna indartzeaz gain, jai herrikoi bategitea dute xede kultural taldekoek. Horregatik, sukaldari profesionalak beharrez, ibartar guztiei dago zuzendua lehiaketa. «Sukaldean, saltsan aritzea» gus-tuko duen edonork har dezake parte, eta antolatzaileek emandako datuen arabera, atzoko hamaisei bikote izena emana zuten. Horregatik, gustura daude Hauspoakoak, «lehendabizikoa izatean, bikote gutxiago animatuko zirela uste genuen eta».

09:30ak aldera, plazan jarriko duten karpan hasiko dira sukaldatzen babarrunak. Gainera, nabarmentzekoa da, hauek, Ibarra babarrunaren ereindakoak izango direla. Honekin batera, ura eta sua ere antolatzaileek jarriko dituzte. Par-

te-hartzaileak profesionalak izan ez arren, sukaldari onak izatea komeniko da, gero, hauek prestatutako babarrunak jango baitituzte herri bazkarian.

Epai-mahaia zenbait herritarrek osatuko dute, eta irabazleek izenak, bazkalondan emango dituzte ezagutzera, kafeko garaian. Irabazleak, txapela eta Eluska jate-txean bi laguntzako afaria eramango ditu.

Hamargarren aldiz, bazkari herrikoia plazan

Hamargarren aldiz egingo dute aurten babarrun jatea. Egun honetan, 120 lagun inguru biltzen dira urtero mahaiaren bueltan, eta igande honetakoan, gehiago izango direla aurreikusten dute.

Ibartar gehiago anima daitezen, «prezioak estutzea» erabaki dute antolatzaileek. Honenbestez, helduak (16 urtetik gorakoek) 15 euro ordaindu beharko dituzte, eta haurrek hiru. Honekin, gaztetxoek eta beraien gurasoei erraztasunak eman nahi izan dizkiete festan parte hartzeko.

Uzturpeko ikasleentzako antzerki emanaldia

11:30ean, Uzturpe ikastolako gaztetxoak taula gainera igoko dira, eta antzerki emanaldia eskaini. *A mets* du izena aurkeztuko duten lanak, eta bertan protagonistek izaten duten amets bat kontatuko dute. Iazko ikasturtean Kristina Roperorekin prestatu zuten lana. Gero, jendaurtean erakutsi zuten, baina orduan ikusi ezin izan zuten zuten amets bat kontatuko dute. Berritzaileak erabaki dute. Artista txikiak, azken asteetan egin dituzte entseguak, eta orain, ibartarrei erakutsiko diete ikasitakoak.

Alurr dantza taldekoen saioa

Alurr dantza taldekoek ere parte hartuko dute igandeko babarrun jatean. 12:30ean taldeko gaztetxo- enek emanaldia eskainiko dute herriko plazan.

Orotara, lau talde ariko dira dantzatzan, eta bakoitzak bina dantza eskainiko ditu. Hauek ere, herritar guztiak gonbidatzen dituzte, beraien ikuskizunaz gozatzera.

Hamaika
Ikusteko, bizitzeko



SINTONZATU EUSKALDUNOKIN: LTD BIEZ (eskatu antenariari), EUSKALTEL BIEZ (11 edo 911), www.hamaika.tv



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:




eta Tolosaldeko eta Leizalzeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Aparkaleku sistema berria martxan

TOLOSA ■ Asteartetik martxan da TAO aparkaleku sistema berriua. Egin dituzten aldaketetako bat Rondilla kalean aurkitzen da. Bertako eskuineko aldean egunez ezingo da aparkatu aurrerantzean. 19:00etatik

aurrera egin dezakete soilik bertako txartela dutenak. Udaletik azaldu dutenez, oro har, egin dituzten aldaketa hauekin bertakoei eman nahi izan diote lehentasuna. I.T.

A Agenda

Jarduerak

■ **Berastegi.** Idoia Sanchezen ipuin kontaketa saioa, Muñagorri eskolan 17:00etan.
■ **Tolosa.** Irakur taldearen solasaldia Jokin Muñozen *Antzararen bi-idea* liburuz Kultur Etxean 19:30ean.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Guraso Eskola 16 urte arteko seme-alaben gurasoentzat, ostegunero Errotan 15:15etik 16:45era, azarotik otsaila arte. Izen-ematea, udaletxeko Osasun eta Gizarte Zerbitzuetan edota 943 69 74 60 zenbakira deituta. 60 euro ordaindu beharko dira eta asistentzia %80 baino gehiago dutenei 50 euro itzuliko zaie.
■ **Villabona.** Azaroaren 27an Euskal Herriko lehen antzerkizale eguna antolatuta nahi dute. Villabonako Euskal Herriko Euskaraz horretarako lan taldea osatu nahian dabil eta dei egiten diete beraiekin parte hartu nahi duten guztiei.

■ **Tolosa.** Gaur eta bihar ziklotorak aztertzeako estazio mugikorra San Esteban auzoko ferialekuan izango da. Txanda 943 62 63 00 zenbakian har daiteke.
■ **Tolosa.** Fronton kafetegiak antolatuko X. Mus Txapelketa Azkarra azaroaren 13an, Beotibar pilotalekuan 16:30etik aurrera. Izena fronton@jeub.org helbidean edota 943 65 14 70 zenbakian eman daiteke.

Zinema

■ **Tolosa.** *Villa Amalia* filma jatorrizko bertsoan Leidor aretoan, 19:15ean eta 21:45ean, zine forumean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK


■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
■ **Lekunberri.** Mendia Barriola. Aralar kalea, 25. 948 50 40 71.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

A Agurrak



Zorionak amona!
Sugaartxo, Inigo, Agur eta Josuren partetik.




Zorionak Eneritz!
Neska txikiak 3 urte betetzen ditu gaur. Muxu potolo bat etxekoan partetik. Arizeta San Sebastian familia.



Ongi Etorri Maddi!

Zorinak
Ainara eta Iñigo!

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



Helduentzat eta umeentzat

Abenduak 24 arte egiten diren erosketengatik
3 zozketatan parte hartuko duzu:
- Spa zirkuito bat
- Posada batean aste bukaera
- Paradore batean aste bukaera



Errementari Kalea, z/g
TOLOSA
Tel.: 943 67 16 30

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info
bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Asteartetik 08:30-20:30 / Lanurteetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31890 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A:
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>